




hariak

2019ko iraila

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesa izan du, honako proiektu honen markoan *Hariak ehunduz II. Unibertsitatean Hezkuntza emantzipatzaileko proposamenak taldean erakitzea* (2017). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaz GLEAren iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M^a Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M^a Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

8.zk., 2019ko iraila

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da,
eta horren lehengaia baso-kudeaketa
iraunkorraren bitartez eskuratu da.

Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

aurkibidea



2

editoriala

Bizitzarekin konprometituta, egungo norabide ultrakontserbadorea gelditzeko gai izango den unibertsitate baten alde

Amaia del Río Martínez

4

sakonean

Hiru hipotesi unibertsitatearen eta gizarte-aldaketaren arteko loturari buruz

Nicolás Armando Herrera Farfán

12

solasean

Unibertsitateak begirada galdua dauka hezkuntzan eta bere biziraupenean

Yayo Herrero López

16

ekin lanari

Galtzagorri eta Bilboko goialdeko auzoetako emakumeen etxea

Begoña González Sánchez

UKS: Unibertsitate kritiko eta eraldatzaile bat lortzeko espazioak sortzen

María Sarasola, Maitane Arnoso, Alberto Gastón, Maitane Cabeza, Xavier Minguez eta Paty Ortiz de Zárate

Garúa: jakintzen ekologia jardunean

Garúa

24

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak Nos están matando • Gerra hemen hasten da

argitalpenak La guerra del neoliberalismo contra la educación superior •

Feminismo/s 33. Dossier monográfico: Diálogos entre la democracia participativa y la interseccionalidad. Construyendo marcos para la justicia social

erakundeak Territorio doméstico • Sindicato de Manteros y Lateros de Madrid

ezinbesteko agenda GOZO I Nazioarteko jardunaldiak eskola elikadura osasungarria

eta iraunkorra • "Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak. Hegoaldeko mugari buruzko analisi feminista bat" Kongresua

28

matxino artean

La Poderío - Feminismo andaluz

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Bizitzarekin konprometituta, egungo norabide ultrakontserbadorea gelditzeko gai izango den unibertsitate baten alde

Unibertsitatea erakunde bakanetakoa da, zeinari ahalmena aitortzen zaion gizartea kritikoki aztertu, eta hura hobetzeari begirako jakintza esanguratsua sortzeko. Hala ere, Unibertsitatea ez dago globalizazio neolibelararen fenomenotik eta haren politikek eta praktikek sortu dituzten krisi sistemikoetatik kanpo. Esan daiteke eredu kapitalistaren logikek erabat baldintzatu dituztela goi-mailako hezkuntzaren zentzua eta egitekoa, eta, ildo horretan, estrategia interesatua bihurtu dute ezagutza, merkatuaren eta, hortaz, sistema sozioekonomiko nagusiaren interesak eta boterea betikotzeko eta legitimatzeko. Hori dela-eta, hainbat esparrutatik sortzen dira unibertsitate-ereduarekiko kritikak.

Akademiatik zein haren esparrutik kanpo sortzen ari diren diskurtsoek eta esperientziek zalantzan jartzen dituzte garapena (hazkunde ekonomikoa) ardatz duten paradigmak, zalantzan jartzen dute hori denik konponbidea gure planetak bizi duen jasangarritasun-arazoari eta gehiengo behartsuenen bizi-baldintza gero eta okerragoari aurre egiteko. Hezkuntza kritiko emantzipatzaileak kontzientzia hartu du zenbat kontraesan eta ondorio suntsitzaile sortu dituen garapenaren eredu honek, eta, hala, beste subjektu, diskurtso eta esperientzia batzuetara hurbiltzea proposatzen du, bizitzaren iraunkortasunarekin bat datorren beste pentsamendu bat elkarrekin eraikitzeko. Elkarrizketarako eta artikulaziorako aukera hauek baliatu behar ditugu, kultura nagusiari aurre egingo dioten praktikak saiatzeko.

Planteamendu honetatik pentsatzeak eta ekiteak, alabaina, kapitalismotik kanpo alternatibak eraikitzea ezinezkoa delako ideian oinarritutako imajinario kolektiboa aldatzea eskatzen du. Ideia hori hain dugu barneratuta, ezen ahalegin handia eskatuko du harekiko lotura hausteak eta justizia soziala, ekitatea eta elkartasunaren printzipioak gauzatzeari begirako ildoetatik pentsatzen ikasteak. Kultura kapitalistaren mitoak lekuz aldatzeko zeregin honek pentsamendu eta praktika heteropatriarkalen, arrazisten, kolonialisten eta estraktibisten deslegitimazioa dakar, dudarik gabe.

Unibertsitate publikoak premiazko konpromiso hau artatzeko espazio erabakigarria izan behar du. Are gehiago, kontuan hartuta gaur egun bizi dugun ildo erreazionario eta ultrakontserbadoreen gorakada, zeinen eskutik ugaritu baino ez diren egiten diskurtso xenofobo, matxista, homofoboak... eta zeinen bidez kontakizun kultural jakin bat inposatu nahi den, haien interesen arabera gatazka, gerra eta inbasioak justifikatzeko.

Gauzak horrela, behar-beharrezkoa da Unibertsitatea egungo errealitateari atxiki, eta hezkuntza eta ikerkuntza esparruak gizartea aldatzeko eta egungo arazoei irtenbidea emateko ezagutzak ekoiztera bideratzea (jakinda ere halako irizpideek ez dutela bikaintasun akademikoaren ideia osatzen). Izan ere, bizitzarekiko konpromisoa duen Unibertsitatea aldarrikatzen dugu, eta, hortaz, erronka nagusia da inposatu nahi den kontakizunaren logikak apurtu, eta etorkizun kultural emantzipatzailea eraikitzea.

Posizio kritiko batetik, ezinbestekoa da neutraltasuna, objektibotasuna eta arrazionaltasun zientifikoa baino defendatzen ez dituen eredu zientifiko positibista zalantzan jartzea, ez baitie balioa ematen herri-kultura tradizionaletatik, emakumeengandik, nekazariengandik, mendebaldekoak ez diren kulturetatik datozen ezagutzei. Ikuspuntu horren nagusitasuna bermatzen duen eurozentrismoak argi erakusten du ez dugula oraindik gainditu iragan kolonialista.

Ez dugu gainditu, orobat, ezagutzaren ekoizpena blaitzen duen androzentrismoa, zeina akademiko feministek etengabe salatu eta salatzen duten. Emakumeek lan nabarmena egin dute "arrazionaltasun zientifikoa" zalantzan jartzeko eta "maskulino" eta "unibertsal" kategoriak lotzen dituzten diskurtsoen zentzugabekeria erakusteko unean. Ezagutzaren deskolonizazioaren ildo beretik, feminismo interseksionalak beste botere- eta dominazio-sistema batzuk identifikatzea planteatzen du, genero-sistemak ezarritakoez harago, desparekotasunak emakumeengan duen inpaktua hobeto ulertzeko eta arazoari aurre egingo dioten konponbide politikoak bilatzeko.

Unibertsitatea beste subjektu eta beste latitude batzuen ganean eraikitako narratibetara zabaltzea, dudarik gabe, ekarpen handia izango da eurozentrismoari eta androzentrismoari aurre egiteko eta imajinario kolektiboaren eta ekoiztiko ezagutzaren deskolonizazio-prozesua sustatzeko. Ikuspuntu dekolonialak eta hegoaldeko epistemologiek oso proposamen iradokitzaileak eskaintzen dituzte talde menderatuen ezagutza balioztatzeke eta eredu eurozentrikotik eta dominazio-logiketarik libre izango den mundu bat eraikitzeke nahia bideratzeri begira. Hortaz, Unibertsitatearen ateak ireki behar zaizkie gizarteko kolektibo hauei, eta, horretaz gain, ikerketa-espazio berriak sustatu behar dira, non helburu nagusiak izango diren subjektu kritikoak sortzea eta gizartea eraldatzea.

Ikuspuntu eta diskurtso hauek guztiak poliki-poliki sartzen hasi dira Unibertsitatean, zenbait subjektu kritikoren lanari eta esfortzuari esker sartu ere –irakasleak, ikasleak, ikerketa-taldeak, bai eta beste eragile hezitzaile eta sozial batzuk ere-. Oso interesgarria izango litzateke halako ekimenei jarraipena ematea, eta, hortaz, unibertsitate-politikak diseinatzeko eta garatzeko erantzukizuna dutenek lekua eman beharko liekete ikuspuntu emantzipatzaileei; izan ere, Unibertsitateak bizitzarekiko konpromisoa eta ongizate komuna izan behar ditu ardatz eta helburu.

Amaia del Río Martínez
(Hegoako hezkuntza lan taldea).

sakonean



Irudia: Camilo Medina Fonseca.

Hiru hipotesi unibertsitatearen eta gizarte-aldaketaren arteko loturari buruz

Nicolás Armando Herrera Farfán. Psikologoa (Surcolombiana Unibertsitatea, Kolonbia), askapenaren filosofian diplomatua (Jujuyko Unibertsitate Nazionala, Argentina) eta gizarte-zientzietan doktoregaia (Buenos Airesko Unibertsitatea, Argentina). Ikertzailea Colectivo Frente Unido- Investigación Independiente taldean (Argentina) eta Latinoamerikako eta Karibeko Ikasketen IEALC Institutuan (Buenos Airesko Unibertsitatea, Argentina). Kolaboratzailea Lanzas y Letras (Kolonbia), Contrahegemonía Web eta Marcha Noticias (Argentina) webguneetan. Haren lan batzuk aurki daitezke artikulu, kapitulu eta liburu moduan, zenbait herrialdetan: Argentinan, Txilen, Kolonbian, Costa Rican, Mexikon, Uruguain eta Venezuelan. Harremanetarako: nherrera@gmail.com

Zer egin zenuten txiroek sufritzen zutenean, eta haiengan, larriki, samurtasuna eta bizitza erretzen zenean?

Otto René Castillo, «Intelectuales apolíticos» (Intelektual apolitikoak).

Kontua ez da herriari zer egin behar duen esatea; kontua da zientziaren eginkizuna gizarte-praxi askatzaile batean txertatzea, zeinak manipulazioa agerian jarri eta suntsituko duen, eta elkartasunean eta justizian oinarritutako gizartea sustatuko duen.

Ignacio Martín-Baró.

Hezkuntzaren gaia zabala eta sakona da, «problematikoa eta bortitza», tangoak dioen moduan. Horregatik, lerro hauetan, gaia mugatu eta hiru hipotesi proposatu nahi ditugu, unibertsitatearen eta gizarte-aldaketako prozesuen arteko loturari buruz, pentsamendu kritikoko ikuspegi batetik.

Lehenengo hipotesia:

Unibertsitateak gizarte-aldaketako prozesuetan parte hartu, lagundu edo eragin nahi badu, Modernitatearen kaiola epistemologiko eta existentzialetik askatu behar da.

Bolívar Echeverriaren (2010) lanari jarraikiz, Modernitatea da zibilizatzeko proiektu bat, XV. eta XIX. mendeen artean Europan sortua, zeinaren helburua gizakien artean eta haien eta naturaren artean harreman berriak ezartzea den, bizimodu tradizionalak (antzinakoak edo arkaikoak) zaharkituta daudela esanez. Prozesu horretan gertakari garrantzitsu batzuk egon ziren: Italiako berpizkundea, protestantismoaren Erreforma, zenbait Iraultza (zientifikoa, frantsesa eta industrial), Ingalaterrako parlamentua, liberalismoa eta menderatzean oinarritutako filosofia politikoa, alemaniar filosofia klasikoa eta Ilustrazioak (ingelesa, frantsesa eta alemaniarra).

XVII. mendetik, Modernitatea elkarren ondoko bi alderdi autonomo eta paralelotan garatu zen: bata «ezpurua», Mediterraneoko hegoaldeko Europakoa, katolikoa, zeina paganismoa ebanjelizatzeko prozesu batetik igaro zen, erresistentzia handia izan zuen, eta amore ematera, integraztera eta nahastera behartu zuen jendea; eta, bestea, «purua», Europako ipar-mendebaldekoa, protestante puritanoa, zeinaren ebanjelizazio-prozesuak ez zuen oztopo handirik izan hondar zelta eta germanikoen gainetik igarotzeko, ia amore ematera behartu gabe, eta zuzenean Ipar Amerikara heldu zen. Bi alderdi horiek bakeak egin zituzten XIX. eta XX. mendeen artean, eta ethos bat osatu zuten, zeinak kapitalismoaren galdera eta eskakizunei erantzuten zien eta ohiz kanpoko hegemonia lortu zuen «amerikartzeko» prozesu globalizatzailearekin.

Sirin Adlbi Sibai feminista musulmanaren arabera (2016), Modernitateak sortutako munduko menderatze-sistema «kaiola epistemologiko-existentziala» da. Gure ustez, kaiola horrek sei ezaugarri zehatz ditu: *ekonomikoa* (kapitalismoa), *politikoa* (demokrazia

“ Sirin Adlbi Sibai feminista musulmanaren arabera (2016), Modernitateak sortutako munduko menderatze-sistema *kaiola epistemologiko-existentziala* da ”

ordezkatzaille liberal-burgesa), *kulturala* (Europaren eta Amerikaren zentrismoa, Alemaniako erromantizismoak sortua XVIII. mendean), *subjektiboa* (arrazalazioa, zuritasuna, patriarkatua eta heteronormatibitatea), *espiritual indibidualista* (kristautasun inperiala eta apokaliptismoa, oparotasunaren teologia eta «light» edo «new age» korranteak), eta *epistemikoa* (metodo zientifiko tradizionala).

Modernitateak irteerarik gabeko bide hilgarri batera eramandu planeta, hainbeste ezen itzulerarik gabeko puntu batera heldu baikara baliabide berriztagarrien arloan. Zenbait intelektualek (Borón, 2009; Houtart, 2008; Mészáros, 2009) iragarritako eta *in extremis modernitate* (Hinkelammert, 1991) deitu izan den dimentsio anitzeko zibilizazio-krisia lau erailketa edo sarraskitan agertzen da:

- *genozidioa*, aurpegi “fobiko” askokoa (txiroei, emakumei eta sexualitate disidenteei, atzerritarrei eta etorkinei, kontinente guztietako jatorrizko herriei);
- *ekoizidioa*, aseezintasun eta harrapakaria kapitalistaren ondoriozkoa (transgenikoak, pestizidak, monolaborantza, desjabetzeagatiko metatzea, es-traktibismoa);
- *espiritualizidioa*, zeinak kolektibotasunarekin eta komunitatearekin lotutako espiritualtasuna eta etikak ezabatzen dituen, eta banakako espiritualismoaren eta merkatu-etikaren alde egiten duen; eta
- *epistemizidioa*, zeinak antzinako jakintzak eta kutsuak subsumitzen dituen, esklabizazioaren eta menderakuntzaren bidez, esaterako, emakumeen (Federichi, 2015), afrikarren (Williams, 2011), indigenen (Dussel, 1994) eta asiarren kasuan, hots, Modernitatearen “Ipar Atlantikoko unibertsalen” biktimen kasuan (Trouillot, 2011); baina gauza bera gertatzen da herri-sektoreekin ere (ezagutzaren monopolioaren, desjabetzearen eta estraktibismo kognitiboaren bidez).

Bigarren hipotesia:

Unibertsitateak eraginkortasunez parte hartu nahi badu gizarte-aldaketako prozesuetan, konpromisoa hartu beharko du bizitzarekin, zibilizazio-paradigma berri bat eraikitzeko.

Modernitateak «egiaren erregimena» ezarri zuen (Öcalan, 2016); hau da, unibertsaltasuna, lehentasun teorikoa, ezagutzaren monopolioa, arrazionaltasun-printzipioa eta diziplinen eta paradigmen antolamendua izateko asmoa zuen, eta hori guztia unibertsitatearen oinarrian dago. Hala, unibertsitateak Modernitateari erresistentzia eta aurka egiteko eta hori gainditzeko prozesuetan parte hartu behar du, hautatzen duen aurkaratze mota edozein delarik ere –adibidez, Bolívar Echeverriak (2010) hiru mota aipatu zituen, zeinak, oro har, nahastuta gertatzen diren: *zibilizazioaren aurkakoa*; *ethos errealistaren aurkakoa* (esaterako, barrokoa, neoklasikoa eta erromantikoa); eta *kapitalismoaren aurkakoa*-. Erronka horretarako, eredu zientifiko nagusi bat ezagutu, eredu hori apurtu, eta ikuspegi berri bat hartu behar da.

Eredu zientifiko nagusia

Eredu zientifiko nagusia natura-zientzietatik sortu zen, eta ezaugarri hauek ditu: homeostatikoa, neutralista, deskribatzaile eta igarlea, aurretik ezarritako ordenaren eta egonkortasunaren kontrolatzailea eta aldaezina da; eredu horretan, ezagutzeak zenbatzea, zatitzea eta sailkatzea esan nahi du. Mekanizismo newtondarrean eta dualismo kartesiarrean oinarritzen da, eta matematikak hartzen ditu aztertze tresna pribilegiatu modura, ikerketaren logika bereganatzen du eta materiaren egitura irudikatze eredu eskuratzen du (Wallerstein, 1996).

Halaber, naturaren lege «unibertsalak» aurkitu nahi ditu, kokapena eta denboragorabehera, errepikagarriak izango direnak, gauzen funtzionamendua azaltzeko (kausa formal aristotelikoa), behaketa sistematiko, aske eta ez-konprometituaren bidez. Funtsean, logika hertsitzea dakar, eta joera horrek egia guztiak betikotu nahi ditu, errepikapenaren bidez, ezagutzen dena egiaztatuz eta arau teoriko edo kategorialeatik urruntzen den guztitik aldentuz.

Gizarte-zientziak XVII. eta XIX. mendeen artean sortu ziren, Europako burgesiaren eskakizun burokratiko

eta politikoei erantzuteko, eta eredu nagusiari heldu zioten: Comteren positibismoa, Spenceren gizarte industrialia, Durkheimen elkartasun organikoa, Rankeren ikuspegiak (Sousa Santos, 2009) eta Parsonen proposamen estrukturalista-funtzionalista. Orlando Fals Bordarentzat (cf. López eta Herrera, 2018), eredu hori tautologia bat da, bere bideari jarraitzen baitio kritika eta hausnarketa handirik gabe, eta ezagutza datu-metaketa huts bihurtzen du, beti dinamikoa eta aldakorra den errealtateetik aldentuta, metodoaren arau teoriko eta kategorioletara egokitu nahian.

Eredu zientifiko nagusiak bost funtsezko zatiketa egin nahi ditu, hauen artean:

- (a) *Subjektua eta objektua*, «nork» ikertzen duen (*subjektua*) eta «zer» ikertzen duen (*objektua*) urrunduz eta bien artean mendekotasuneko harreman asimetrikoa ezarriz. *Subjektuak* (zuria, gizona, europarra, hiritarra, kristaua, aberatsa, ikasia) rol aktiboa dauka; *objektua* (subjektibotasun guztia galtuta, hots, *gauza edo fetitxe* bihurtuta, natura nahiz beste gizaki batzuk izan), berriz, luzapen pasibo, betiereko eta itzulgarritzat hartzen da.
- (b) *Jakitea eta egitea*, ezagutza errealtateko benetako jardute edo gertakari orotatik urrunduz, ezagutza islatzaile, deskribatzaile eta azaltzaile baten bidez, zeina autoerreferentzia zientifiko moduan soilik baliozkotzen den; hala, batetik, jakintzak hierarkizatzen dira (non eskuzko jakintza eta egiten jakitea mendeen geratzen diren), eta, bestetik, gainespezializazio alienatzailea lortzen da.
- (c) *Jakitea eta sentitzea*, erabateko gerra deklaratu subjektibotasun guztien aurka, arrazoiaren eta objektibotasunaren izenean. Hala, subjektuen esperientziak eta emozioak deuseztatzen dira.
- (d) *Jakitea eta sinestea*, "aurreiritzi jakobino" arrazionalista eta sekularistatik abiatuta (Bautista, 2014; Dussel, 2013), zeina *myto delatik logos* delakora igarotzearen ideian oinarritzen den, antzinako jainkoak eta haien azalpenak akabatu nahi dira, «magikoak», «umekeriak» eta

« Unibertsitateak Modernitateari erresistentzia eta aurka egiteko eta hori gainditzeko prozesuetan parte hartu behar du »

baliogabeak direla esanez (ahalegin horretan, bide batez, etikaren heriotzara hurbiltzen da).

- (e) *Jakitea eta ahal izatea*, asmo eta jarrera guztiak ukatuz, zientzia gailu aseptiko eta apolitiko bihurtzen duen balio-neutraltasuna eraikitzeko. (Egiaz, horrek hipokresia etiko-politiko estaltzen du).

Eredu tradizionala haustea

Gizartea aldatzeko helburua duen unibertsitate-proiektu oro «egiaren erregimen» modernoaren aurka egin, eta hori gainditzeko saiatu behar da. Ebakuntza egin behar da lehen aipatutako zauriak josteko, pentsamendu kritikoa irizpideei jarraitzen dieten bost eginkizunen bidez (Vega, 2012):

- (a) *Errealitateetatik abiatzea*. Errealitateetatik abiatzea da tautologia zientifikoaren eta horren garrantzirik ezaren aurkako antidotoa. Hala, pentsamendu-ekintza bat da, praxi bat, zeina, Enrique Dusselen ustez (2016a), ezagutzaren helburua izateaz gain, horren arbasoa ere baden. Orduan, sozialki eta historikoki kokatutako ezagutzak sortzen dira, eta ezagutzak errealitateetan eragiten dute; hala, ekoizle eta produktu dira, aldi berean.
- (b) *Etika erdigunean jartzea*. Etika bi subjektuen artean soilik egon daitekeenez, subjektu-objektu harremanean planteatutako kosifikazio hori apurtu behar da, subjektutasuna berreskuratu eta berdinen arteko elkarrizketa ezartzeko. Horrela, gizakiak ez dira gehiago «giza kapital» eta «giza baliabide» izango, eta natura ez da gehiago «paisaia» eta «baliabide natural» izango. Dussel dioenez (2016a), hor dago kritikotasunaren muina, etika bi subjektuen artean soilik egon baitaiteke. Prozesu hori jardunbide akademikoan ere egin behar da (baita azterketetan ere): unibertsitateko giza harremanetan eta unibertsitatearen eta gizartearen artean.
- (c) *Ezagutzaren monopolioa haustea*. Subjektutasuna berreskuratzeko berekin dakar berreraikitze epistemikoa; izan ere, subjektu berdinei jakintza berdinak dagozkie. Bira horrek jakintza zientifiko eta akademiko birkokatzen du; hain zuzen ere, onartzen du munduko errealitateak oso konplexuak direla eta ezin direla ezagutza mota bakarretik landu. Hala, elkarrizketa irizpidetzat

«Gizartea aldatzeko helburua duen unibertsitate-proiektu oro egiaren erregimen modernoaren aurka egin, eta hori gainditzeko saiatu behar da»

hartu, eta «jakintzen ekologia» (Sousa, 2009) eratzen da, lau norabidetan: (1) ezagutza zientifikoaren eta herri-ezagutzaren artean, jakintza iraultzailea sortuz; (2) mendebaldeko ezagutzen eta antzinakoen artean (indigena, afrikarra, ekialdekoa edo ekialde hurbilekoa), jakintza raizala sustatuz; (3) ezagutza arrazionalen eta sentsozial-afektiboen artean, jakintza enpatikoa sustatuz (Fals Bordaren sentipentsamendua edo Zubiriaren adimen sentitzailea); eta (4) ezagutza formal-arrazional eta ez-arrazionalen artean (metafisikoak, espiritualak, mistiko-erlijiosoak eta magikoak), jakintza berri konplexu baten alde eginez.

- (d) *Konpromiso bat gorpuztea*. Sufrimenduekin, taldeen nahiekin eta antzinako herri-borrokekin lotuta, haietatik elikatuz eta ikasiz. Orlando Fals Borda (1970) eta Adolfo Sánchez Vásques (2007) pentsalarien ustez, pertsona baten ekintza edo jarrera da, bizi den gizartean eta garaian duen tokiaz jabetzen denean agertzen dena; hala, ikuslearen pribilegioari uko egin, eta bere idealen zerbitzura jartzen da. Orduan, lan intelektual guztietan neutraltasunik eta tolesgabatasunik ez dela ikusten da, ez baitago jakintza abstraktu eta formalik.
- (e) *Akademia berriz politizatzea*. Ulertuz ezagutza-prozesu guztietan interes zientifikoak eta politikoak daudela. Horrela, agerian geratzen da «egiaren erregimena» eratzen duten paradigmek zibilizazio-ereduaren ideologia dutela oinarrian, eta, Fals Bordak dioen moduan (in López eta Herrera, 2018:88), «okerreko politikak justifikatzen eta sustatzen dituzte, esaterako, ingurumena suntsitzen duen desarrollismoa eta kapitalismo neoliberal esplotatzailea». Aldi berean, horrek giza harremanetan boterea dimentsioz aldatzea eskatzen du, maila mikro, ertain eta makroetan.

Ikuspegi berria hartzea

Horrela, ezagutza berri, kritiko eta propositiboak badaki borroka anizkuna duela aurretik, konturatzen

baita ez duela soilik eredu epistemikoaren aurka egiten, zibilizazio-proiektu moderno osoaren aurka baizik. Ikuspegi bitalista, etiko, demokratiko, kulturarteko, mesianiko-utopiko eta dialogiko moduan altxatzen da. Ikuspegi berri hori, kuia baten bihotza balitz bezala, elkarri lotutako hiru dimentsioko txirikorda moduan ikusten da, zeina maila guztietan egon behar den (oheak, etxeak eta plazak, bai eta munduko estatu-sistema eta alde anitzeko erakundeak ere).

- (a) *Filosofikoa*. Modernitateak ukatutakoa baieztatuz, hots, kultura eta filosofia periferiko eta kolonialen balioa berretsiz (afrikarra, txinatarra, vedanta eta latinoamerikarra, besteak beste), ezinbestekoak direla ikusteko (Hinkelammert, 2012). Horrela, elkarriketa konstruktiboa egin daiteke Europako eta Amerikako Modernitatearen elementu positiboekin. Ikuspegi filosofiko pluribertso horri transmodernitate deitu diote (Dussel, 2005, 2016b).
- (b) *Epistemologikoa*. Ikuspegi honi esker, paradigma zientifiko berri batera igaro gaitezke, zeina irekia eta malgua, testuinguruaren arabera, dialogikoa eta dialektikoa izango den, eta errealtateetatik begiratzen duten eta ateratzen diren diziplina-bateratzeak izango dituen. Epistemologia sentipentsatzailea (Fals Borda, 2002), bihozdua (Guerrero, 2010) eta ekologikoa (Sousa, 2009) da. Paradigma berri horri «hegoaldeko epistemologiak» (Sousa, 2009) edo partaidetzako ikerketa-ekintza (Fals Borda, 2017a, 2017b) deitzen zaio.
- (c) *Politikoa*. Politika «produkzioa, erreprodukzioa eta bizitzaren handitzea antolatzen eta sustatzen duen jarduera» dela ulertuta (Dussel, 2010:26), subjektuen eta naturaren arteko harreman metabolikoarekin bat datorren zibilizazio-ereduaren alde egiten da. Zibilizazio-paradigma berri horrek zenbait izen ditu: sozialismo raizala edo kazyadu (Herrera, 2018), Guztien ona (Houtart, 2013, 2014), Bizimodu ona (Sousa, 2010) edo konfederalismo demokratikoa (Öcalan, 2013).

“ Ezagutza berri, kritiko eta propositiboak, konturatzen baita ez duela soilik eredu epistemikoaren aurka egiten, zibilizazio-proiektu moderno osoaren aurka baizik ”

Hirugarren hipotesia:

Unibertsitateak konpromisoa hartu nahi badu gizarte-aldaketako prozesuekin, barrutik berrantolatu behar da.

Orain arte esandakoa zentzugabekeria eta unibertsitatearen suizidio ontologikoa izan daiteke, unibertsitateak Modernitatearekin duen harremana dela-eta; eta, nolabait, hala da. Alabaina, ulertzen badugu zibilizazio-panorama modernoa kritikarik egin gabe mantentzean eta errepikatzean datzala zentzugabekeria eta suizidioa, eta, horregatik, Modernitatea gainditzeko unibertsitatea eraldatu behar dela, orduan, aurreko hori ezinbestekoa izango da. Unibertsitateak funtsezko elementuak emateko erronka du, eta, horretarako, barrutik berrantolatu behar da, zenbait zentzutari:

- (a) *Diziplina artekotasuna onartzea*. Hemeretzigarren mendeko alemaniar eruditik oinordetutako unibertsitate-egitura (profesionala eta hierarkikoa), zeina konpartimentu estankotetan antolatuta dagoen, ezagutzaren feudalizazioa da, eta dauden errealtateen konplexutasunetik aldentzen da. Unibertsitateak bizitzarekin eta gehiengo nahigabeekin lotutako «egiten jakite» bat eraiki nahi badu, diziplina artekotasunaren alde egin beharko du, zeina errealtateetatik sortzen den, proiektu praktikoko erkideen bidez. Zientziaren praxiak bideratu behar du antolaketara, eta ez alderantziz. Orlando Fals Bordak dioen moduan:

Jakina da, arazo garaikide nagusiei ekiteko (esaterako, pobrezia, gosea, suntsitze ekologikoa, gizakien esplotazioa, indarkeria instituzionala eta orokorra...), espezialitateak gainditzeko dituzten azterketa-maila konplexuak behar direla. Orduan, premia komunitario larriekin zuzenean lotutako ekintza zientifikoko eta teknikoko alor berriak agertuko lirateke (...). Eta erakunde, norabide eta ekintza askoz ere demokratikoago, partaidetzakoago eta pluralistagoak egongo lirateke (cf. López eta Herrera, 2018: 318-319).

- (b) *Ikerketa lehenestea*. Arazo errealek bideratzen dutenez unibertsitatea, lehenetsuna eman behar zaio ikerketari, horri esker ezagutzaren zorrotasunari konpromiso sozial eta historikoa batu ahal zaio eta. Horrela, unibertsitateko ikasleek, gizarteetako kultura-talde pribilegiatuak diren heinean, gizarte-aldaketaren aldeko



Argazkia: Denise Zambonato (Oscar González "Guache" artista plastiko kolonbiarraren Sentipensantes murala, Argentinako Buenos Airesko Unibertsitateko Gizarte Zientzien Fakultatean).

“ Unibertsitateak bizitzarekin eta gehiengoan nahigabeekin lotutako ‘egiten jakite’ bat eraiki nahi badu, diziplina artekotasunaren alde egin beharko du ”

antikonformismo zientifikoa eraiki dezakete, zeinak nabarmen gainditzen duen azaleko antikonformismoa, utopikoa eta sentimentala, edo frustrazioak eta saminak eragindakoa, Camilo Torres Restrepok adierazi zuen moduan (cf. 1970: 346–350).

- (c) *Sozialki konprometitutako ideia bat gorpuztea.* Unibertsitatearen ideia ez da estatikoa, aldaezina edo bakarra, eta ideia bakoitza teoria edo garai jakin bati dagokio. Adolfo Sánchez Vásquez (cf. 2007: 166–172) pentsalariak lau ezarri ditu, gutxienez: *akademizista*, zeinaren azken helburua funtzio akademikoa den, gizartearekin loturarik izan gabe; *populista*, zeinak aktibismo politikoa lehenetsi, eta alde batera uzten dituen funtzio akademikoaren irizpide zorrotzak; *merkantilista*, zeinak funtzio akademikoa sektore pribatuaren eta kapital-metaketaaren mende jartzen duen; eta *sozialki konprometitua*, zeinak funtzio akademikoa gizartearen gehiengoan zerbitzura jartzen duen. Ildo horretan, gizarte-aldaketarekin konpromisoa hartu nahi duen unibertsitatearen erronka sozialki konprometitutako ikuspegia hartzea da; ikuspegi bat, zeinak ezagutza

baliagarria sortuko duen testuinguruetarako, eta ez aldizkari espezializatuak edo parnaso artifizialak elikatzeke, edo talde edo alderdi politikoetarako, edo Modernitatea elikatzen jarraitzeke.

Azken buruan, unibertsitateak gizarte-aldaketako prozesuekin elkartu nahi badu, erdigunetik atera, eta bere funtzioa eta asmoa birpentsatu behar ditu, eremu epistemologiko, metodologiko eta praxiologikoetan. Instituzioek ez ezik, gizartea osatzen duten indar guztiek ere egin beharreko lana da, maila guztietan, eta, horretarako, klaustroetako ateak eta leihoak zabaldu behar dira, bizitzaren airea sar dadin.

Bibliografia

- Adlbi Sibai, Sirin (2016). *La cárcel del feminismo. Hacia un pensamiento islámico decolonial*. Mexiko DF: Akal argitaletxea.
- Bautista Segales, Juan José (2014). *¿Qué significa pensar desde América Latina?* Mexiko DF: Akal argitaletxea.
- Borón, Atilio (2009). *Socialismo del siglo XXI, ¿hay vida después del neoliberalismo?* La Habana, Kuba: Editorial de Ciencias Sociales argitaletxea.
- Dussel, Enrique (1994). *1492: el encubrimiento del otro. Hacia el origen del mito de la modernidad*. La Paz, Bolivia: Plural argitaletxea - UMSA.

- Dussel, Enrique (2005). Transmodernidad e interculturalidad. (Interpretación desde la filosofía de la liberación). Kontsulta: 2018ko azaroaren 20an, <<http://ceapedi.com.ar/imagenes/biblioteca/libros/105.pdf>>.
- Dussel, Enrique (2010). *20 tesis de política* (2. ed.). Caracas, Venezuela: "El perro y la rana" argitaletxea.
- Dussel, Enrique (2013). *Política de la liberación. Historia mundial y crítica* (1. libk.). Buenos Aires, Argentina: Docencia argitaletxea.
- Dussel, Enrique (2016a). *14 tesis de ética. Hacia la esencia del pensamiento crítico*. Madril, Espainia: Trotta argitaletxea.
- Dussel, Enrique (2016b). *Filosofías del sur*. Mexiko DF: Akal argitaletxea.
- Echeverría, Bolívar (2010). *Modernidad y blanquitud*. Mexiko DF: Era argitaletxea.
- Fals Borda, Orlando (1970). Algunos problemas prácticos de la sociología de la crisis. In Cortés, R. (argit.), *Ciencias sociales: ideología y realidad nacional* (59–85. or.). Buenos Aires, Argentina: Tiempo contemporáneo argitaletxea.
- Fals Borda, Orlando (2002). *Historia doble de la costa. Resistencia en el San Jorge* (2. ed., 3. libk.). Bogota, Kolonbia. Kolonbiako Unibertsitate Nazionala - El Áncora argitaletxea.
- Fals Borda, Orlando (2017a). La Investigación-Acción en convergencias disciplinarias. In Fals Borda, Orlando, *Campesinos de los Andes y otros escritos antológicos* (389.-400. or.). Bogota, Kolonbia. Kolonbiako Unibertsitate Nazionala, Errektoretza.
- Fals Borda, Orlando (2017b). Los problemas contemporáneos en la aplicación de la sociología al trabajar en la Investigación-Acción Participativa. In Fals Borda, Orlando, *Campesinos de los Andes y otros escritos antológicos* (401.-407. or.). Bogota, Kolonbia. Kolonbiako Unibertsitate Nazionala, Errektoretza.
- Federici, Silvia (2015). *Calibán y la bruja: mujeres, cuerpo y acumulación originaria* (2. ed.). Buenos Aires, Argentina: Tinta Limón.
- Guerrero Arias, Patricio (2010). *Corazonar. Una antropología comprometida con la vida*. Quito, Ekuador: Abya Yala argitaletxea.
- Herrera Farfán, Nicolás Armando (2018). *Saber colectivo y poder popular. Tentativas sobre Orlando Fals Borda* (1. ed.). Buenos Aires, Argentina: El Colectivo argitaletxea.
- Hinkelammert, Franz (1991). *La fe de Abraham y el edipo occidental*. San José, Costa Rica: DEI argitaletxea.
- Hinkelammert, Franz (2012). *Lo indispensable es inútil. Hacia una espiritualidad de la liberación*. San Jose, Costa Rica: Arlekin argitaletxea.
- Houtart, François (2008). *El camino a la utopía desde un mundo de incertidumbre*. La Habana, Kuba: Ruth argitaletxea.
- Houtart, François (2013). El bien común de la humanidad: un paradigma post-capitalista frente a la ruptura del equilibrio del metabolismo entre la naturaleza y el género humano. Helbide honetatik: <<https://web.ua.es/es/giecryal/documentos/ponencia-houtart.pdf?noCache=1361258372640>>.
- Houtart, François (2014). Camilo Torres, un luchador de nuestro tiempo. En Fundación Colectivo Frente Unido (Ed.), *Unidad en la diversidad. Camilo Torres y el Frente Unido del Pueblo. (Aportes para el debate)*. (15.-37. or.). Bogota, Kolonbia. Desde Abajo argitaletxea - Periferia Fondo Editorial argitaletxea.
- López Guzmán, Lorena & Herrera Farfán, Nicolás Armando (argit.). (2018). *Ciencia, compromiso y cambio social. Antología de Orlando Fals Borda* (2. ed.). Buenos Aires, Argentina: El Colectivo argitaletxea.
- Mészáros, István (2009). *Socialismo o barbarie. La alternativa al orden social del capital*. Bogota, Kolonbia. Desde Abajo argitaletxea - Pasado y Presente 21 argitaletxea.
- Öcalan, Abdullah (2013). *Hoja de ruta. Hacia la paz en el Kurdistán*. Tafalla, Euskal Herria: Txalaparta.
- Öcalan, Abdullah (2016). *Orígenes de la civilización. La era de los dioses enmascarados y los reyes cubiertos*. Lomas de Zamora, Argentina: Sudestada argitaletxea.
- Sánchez Vásquez, Adolfo (2007). *Ética y política*. México DF: Fondo de Cultura Económica - UNAM.
- Sousa Santos, Boaventura de (2009). *Epistemologías del sur*. Mexiko DF: Siglo XXI Editores argitaletxea.
- Sousa Santos, Boaventura de (2010). *Refundación del Estado en América Latina. Perspectivas desde una epistemología del Sur*. Buenos Aires, Argentina: Antropofagia argitaletxea.

Torres Restrepo, Camilo (1970). *Cristianismo y revolución*. (Olivieri, Guitemie, Maldonado, Óscar, & Zabala, Germán, argit.). México Mexiko DF: Era argitaletxea.

Trouillot, Michel-Rolph (2011). Universales nordatlánticos: ficciones analíticas, 1492-1945. En Dube, Saurabh (argit.), *Encantamiento del desencantamiento. Historias de la modernidad* (49.-72. or.). Mexiko DF: El Colegio de México.

Vega Cantor, Renán (2012). Elogio del pensamiento crítico. Kontsulta: 2019ko urtarrilaren 4an, de <www.rebelion.org/noticia.php?id=149334>.

Wallerstein, Inmanuel (1996). *Abrir las ciencias sociales*. Mexiko DF: Siglo XXI Editores argitaletxea.

Williams, Eric (2011). *Capitalismo y esclavitud*. Madril, Espainia: Traficantes de sueños.





Irudia: Clara Elías.

Unibertsitateak begirada galdua dauka hezkuntzan eta bere biziraupenean

Yayo Herrero López. Antropologoa, gizarte-hezitzailea eta nekazaritzako ingeniari teknikoa da, eta Ikasketa Aurreratuen Diploma du Hezkuntza Zientzietan. **FUHEM** erakundearen zuzendari nagusia izan zen 2012. eta 2018. urteen artean, eta erakunde horretako Patronatuko kidea da gaur egun. Madrilgo Complutense Unibertsitateko Fundazio Orokorreko Ingurumeneko Ikasketen eta Informazioaren Complutense Zentroko (CCEIM) koordinatzailea izan zen 2008. eta 2011. urteen artean. **Garúa S. Coop.** Mad. kooperatibaren bazkide sortzailea izan zen, eta bertako bazkide eta langile izan zen 2008ra arte. UNED Unibertsitateko **Ingurumen Hezkuntzako eta Garapen Iraunkorreko Unesco Katedrako** irakasle laguntzailea da. Hogei liburutik gora idatzi ditu, beste idazle batzuekin batera, ekologia sozialaren, feminismoaren eta gizarte-zientzien inguruan. Era berean, *Cuadernos de Trabajo/Lan-koadernoak* Hegoa aldizkariaren argitalpen-kontseiluko kidea da. **Ekologistak Martxan** erakundearen koordinatzaile konfederala izan zen 2005. eta 2014. urteen artean.

Gaur egun, globalizazio neoliberalaren ondorioz, munduan errealitate erabat larri eta dramatikoak daude; hori ikusita, aldaketako xedea duen ikuspegi kritikoaz begiratuta lan egiten dugunok hezkuntza-larrialdiko garai batean gaudela pentsatzen dugu. Horrez gain, aukera ona da

hezkuntzako proiektu berriak asmatzeko, zeinek aurrea hartuko dieten modernitatearen proiektuaren oinarri arrazionalista, androzentriko eta kolonialei –mendebaldeko kulturak sortutako proiektua da, eta gero mundura zabaldu da–. Ados al zaude hausnarketa horiekin?

Yayo. Bai, erabat ados. Zibilizazio-krisi sakona bizitzen ari gara. Gure ekonomia, politika eta kultura bera bizitzari eusten dioten oinarri materialen aurka garatu dira.

Duela mende batzuetatik, mendebaldeko kulturak naturarekin duen harremana kanpotasunekoa, nagusitasunekoa eta instrumentaltasunekoa da. Hein handi batean, horren ondorioz, «aurrerapen» deritzoguna planetaren mugen aurka joan da, eta ez du kontuan hartzen pertsonak garela, banan-banan, eta zaurgarriak garela, besteen beharra dugula gure bizi-baldintzak mantentzeko.

Hezkuntza-sistema konbentzionalek logika hori finkatzeko balio izan dute, baina logika bidegabea, androzentrikoa, biozida eta patriarkala da, azken finean. Seguruena, gazteenak beren biziraupenaren aurka hezten dituen kultura bat gara. Horregatik, zalantzarik gabe, naturarekiko eta pertsonen arteko lotura eten horiek berriz elkartzeko gai diren pertsonak prestatzeko aukerak –eta urgentiak– ari dira sortzen, gizartearen arlo guztietan eta hezkuntzan.

Zure proposamena pertsonen ekomendekotasunean eta interdependentzian oinarritzen da esateko bizitza erdigunean jarriko duen hezkuntza-proiektu ekosoziala behar dela. Sakonduko zenuke ideia horretan?

Yayo. Gizakiak ekomendekoak gara, halabeharrez. Ingurune natural batean bizi gara, zeinak mugak dituen eta ez dugun nahierara kontrolatzen, eta bizirik irauteko behar dugun guztia ematen digun: elikagaiak, energia, materialak, ura, klima erregulatzen du, materialak birsortzen eta birziklatzen ditu...

Gainera, gure gorputzak bizitza osoan zaindu behar dira, batez ere bizi-zikloko une jakin batzuetan, esaterako, haurtzaroan, zahartzaroan, gaixotasunak ditugunean, etab. Historian zehar, emakumeak arduratu gara gorputzak zaintzeaz. Eta ez da izan naturalki besteak zaintzeko «diseinatuta» gaudelako,

« Duela mende batzuetatik, mendebaldeko kulturak naturarekin duen harremana kanpotasunekoa, nagusitasunekoa eta instrumentaltasunekoa da »

« Ikuspegi dekolonialak gure kulturari buruz ematen digun irudia ez zaigu gustatzen, baina gure burua ispilu horretan begiratzera behartuta gaude »

gizarte patriarkaletan bizi garelako baizik, eta gizarteak rol horiek arauz esleitu dizkigulako.

Ekomendekoak eta elkarren mendekoak garenez, ulertu beharko genuke gizakion bizia ez dela bere kabuz mantentzen. Berariaz mantendu behar da, eta horregatik esaten diogu bizitzaren iraunkortasuna, bizitza birsortzea eta egunero eta belaunaldiz belaunaldi mantentzea bermatzen duen nahitako prozesuari.

Zure esperientziatik eta bizitzaren iraunkortasunari eta eraldaketa ekosozialerako hezkuntzari buruzko diskurtsoetik, nola indartzen da pentsamendu hori beste proiektu batzuekin (dekoloniala, interseksionalitatea...)?

Yayo. Niretzat, lotura argia dute. Ikuspegi dekolonialak gure kulturari buruz ematen digun irudia ez zaigu gustatzen, baina gure burua ispilu horretan begiratzera behartuta gaude.

Kapitalismoa naturaren etengabeko esplotazioan eta emakumeen denboren eta gorputzen bahikuntzan oinarritzen da bizitza mantentzeko, bai eta beste pertsona, lurralde eta kultura batzuetan ere, zeinak meatze, zabortege eta giza energia modura erabili dituen.

Ikuspegi horrek ezkutuan utzi ditu eredu hori bazterretatik mantendu duten subjektu gizatiarrak eta ez-gizatiarrak. Horretarako, haien ekarpenak ezkutatu eta baliogabetu eta haien ezagutzak mespretxatu ditu. Kapitalismoa eta mendebaldeko kultura arrazistak dira, egituraz.

Putzu honetatik irteteko, errealitate horri aurrez aurre begiratu behar diogu, egindakoa onartu, eta beste horiek, azpiratuak baina sendoak diren horiek, esan behar digutena entzun.

Esan dezakegu, Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak ikusita, nazioarteko komuni-

“Mugak gaindituta dituen planeta honetan, pobreziaren aurka borrokatzeko gehiegizko aberastasunaren aurka borrokatu behar da”

tateak bere egin dituela munduan dauden arazoak, eta konturatu dela neurri egokiak hartu behar direla indarrean dagoen garapen-ereduaren ondorio batzuk lehengoratzeko. Alabaina, batzuen ustez mugak, ahulguneak eta kontraesanak daude. Zure ustez, zein dira Garapen Iraunkorrerako Helburuen alderdi kritikagarrienak? Zer erantzukizun du unibertsitate publikoak Agenda 2030en erronkeki-konpromisoari dagokionez?

Yayo. Nire ustez, Garapen Iraunkorreko Helburuen alderdirik baliotsuena da onartzen dutela garapen txarreko arazo bat dugula (hala iparralde globalean nola hegoalde globalean) eta lotura ezartzen dutela krisi ekologikoaren eta garapen txar horren artean.

Okerrena da, nire ustez, garapenaren mugez hitz egiten dutela eta, beraz, guztia ezinezko kapitalismo berdearen esku uzten dutela (hazkunde ekonomikoa, jarraitua, iraunkorra, ekitatiboa eta abar). Bestalde, ez du hitz egiten aberastasunaren birbanaketan eta, nire ustez, dagoeneko mugak gaindituta dituen planeta honetan, pobreziaren aurka borrokatzeko gehiegizko aberastasunaren aurka borrokatu behar da.


Unibertsitateak sekulako konpromisoa izan beharko luke. Aukera eman behar du giza adimena eta ezagutza aurrean ditugun arazo handiak konpontzera bideratzeko. Uste dut, zoritxarrez, unibertsitateak, hein handi batean, begirada galdua daukala hezkuntzan eta bere biziraupenean, eta gune marjinal batzuek soilik heltzen diote arazo horiek konpontzeari, behar dugun sakontasunaz eta erradikaltasunaz.

Duten botere eraldatzaileagatik, ikuspegi feministen eta ekosozialen zer elementu nabarmenduko zenituzke,

gero eta merkantilizatuago dagoen unibertsitateko ezagutza-ekoizpenaren eta boterearen logikak zalantzan jartzeko orduan?

Yayo. Gezurrezko dikotomiak desegiteko duten modua nabarmenduko nuke. Ez dago kulturarik, ekonomiarik eta teknologiarik naturarik gabe. Ekonomia biosferaren azpimultzoa da, eta ez alderantziz. Ez dago ekoizpen kapitalistarak, aurretiazko baldintza bat gabe: bizitzaren ekoizpena. Ikuspegi ekologista eta feministak bizitza erdigunean jartzen du; hala, geure burua espezie moduan ulertzen laguntzen digu, eta aukera ematen digu guztiontzako bizi-baldintzei lehentasuna ematen dieten jardunbideak antolatzen.

Zer oinarri izan beharko lituzke unibertsitateak, justizia sozialeko eta ingurumen-justiziako proiektuak garatzeko konpromisoa hartzen badu,



Irudia: © Ecologistas en Acción eta ConsumeHastaMorir.

gehiengo sozialen bizi-baldintza (materialak eta emozionalak) bermatzeko?

Yayo. Nire ustez, alfabetatze ekologikoko presazko prozesu bat hasi beharko genuke diziplina guztietan. Ez dut esaten jende guztiak ekologian eta geologian espezializatuta egon behar duenik, baina ezagutzak oinarrian hartu beharko lituzke, batetik, aurrez aurre dugun egoera eta, bestetik, horri aurre egiteko dauden moduen ondorio ekonomiko, politiko eta etikoak, bai eta giza arlokoak ere.

Ezinbestekoa da konturatzea 7.000 milioi pertsonatik gora eta askoz ere animalia, landare eta mikroorganismo gehiago dituen komunitate baten parte garela. Gure kulturak dirua sakralizatu du, eta ez da konturatzen teknologia beharrezkoa dela, baina ez dela nahikoa guztiok barne hartuko gaituen munduan bizitzeko.

Unibertsitatearentzat aldarrikatzen dugun rola –gizarte-eragile konprometitu moduan– irakaskuntzara, ikerkuntzara eta prestakuntzara heldu behar da, gizalegezko, elkarlaneko eta justiziako balio batzuekin bat etorritik. Ezagutzen al duzu ikuspegi ekosozialarekin eta bizitzaren iraunkortasunarekin lotutako esperientziarik unibertsitatearen esparruan?

Yayo. Jakina. Zoritxarrez, ez dira gehiengoak, baina zenbait esperientzia datozkit gogora: Hegoaren lana; Ingurumen Hezkuntzako eta Pentsamendu Konplexuko Masterra, UNED unibertsitateko Ingurumen Hezkuntzako Unesco Katedrarena; Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Iraunkortasuneko Diploma; Pentsamendu Ekonomikoko Katedraren eta Bartzelonako Unibertsitateko Institut de Ciència i Tecnologia Ambientals institutuaren lana; Soziologiako eta Nekazaritza Ikasketetako Institutuaren Agroekologiako Masterra, Kordoban; eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketataldeak antolatzen duena. Seguruenik, gehiago egongo dira. Oso gune baliotsuak eta beharrezkoak dira.

“ Nire ustez, alfabetatze ekologikoko presazko prozesu bat hasi beharko genuke diziplina guztietan ”



Jherlyn López

CONSUMEHASTAMORIR.COM



Nortzuk gara

• Galtzagorri

Hemen aurkituko gaituzue

• www.facebook.com/Galtzagorri.Koloretxe

Galtzagorri eta Bilboko goialdeko auzoetako emakumeen etxea

Bilboko goialdeko auzoak

Antzina, hala deitzen zitzaien Zabala, Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoei, Alde Zaharra baino gorago baitzeuden.

Sortu zirenetik gaur arte, auzook pobrezia eta aberastasunaren artean egon dira, irudika daitekeen ia edozein ikuspegitatik begiratuta. Batetik, Euskadi osoko gizarte-bazterketako arriskurik handiena pairatzen dute, Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait txostenen arabera, eta bertako biztanleek Bilboko beste auzoetakoek baino 10 urte gutxiagoko bizi-itxaropena dute. Bestalde, askotariko biztanleak eta taldeak ari gara, modu batean edo bestean, auzo horien alde lanean, egunerokotasuna askotariko ekimenekin aberastuz, askotarikoak baikara bertan gabiltzan eta bizi garen pertsonak.

Zenbaitetan, plan instituzionalak egon dira, baina eragin txikia izan dute gure bizitzetan, eta onura handiagoa ekarri die Bilboko eta Bizkaiko beste toki batzuetatik etorritakoei.

Gizarte-bazterketarekin batera, pobrezia, langabezia, prekarietatea, indarkeriak, arrazakeria, etxerik ez izatea, hirigintza negatiboa, txirotasuna, eskaletasuna, etxebizitza kaskarrak, aisiarako denbora eta gune falta, eta abar agertzen dira. Egoera eta bizipen horiek guztiak are larriagoak dira emakumeentzat.

Aberastasuna, berriz, gure aniztasunean dago, askotariko kulturak, hizkuntzak, gastronomiak, adinak, gorputzak, bizipenak, sexualitateak, kaleak, saltegiak, kafetegiak, zentroak, taldeak, elkartasunak,

boluntariorzak eta kaleak bizitzeko moduak baititugu. Zerbait ematen digun eta haztera bultzatzen gaituen guztia, baita emakume garen aldetik ere.

Auzo horietako eta, ondorioz, auzo guztietako emakumeen bizi-baldintzak aberasteko eta hobetzeko borrokan ari den taldeetako bat Galtzagorri da.

Galtzagorri

Zabala, San Frantzisko eta Bilbo Zaharreko emakumeen taldea. Ikuspegi feminista oinarri hartuta, oreka sozial, ekonomiko eta politikoa lortzeko borrokatzen da, sistema hau eta gaur egungo bizimoduak aldatzeko, mundua (edo munduak) gune iraunkor bihurtuz. Gaur egungo eredu nagusiak askotariko diskriminazio eta indarkeriak sortzen ditu. Auzo horietan, emakumeok biziki pairatzen ditugu diskriminazio eta indarkeria horiek; horregatik, Galtzagorrik tokiko errealitate horretan jartzen du arreta.

Talde honetako emakumeak 1992an hasi ginen borrokan gure gune eta kaleetan, zenbait frontetan lanean eta hainbat rol hartuta aldi berean: amak, alabak, bikotekideak, zaintza, etxeak, gizartea, kaleak, taldeak, enpresak... Horren guztiaren ondorioz, 2006. urtearen inguruan zeharo nekatuta amaitu genuen. Jarduera eten genuen 2015. urtearen erdialdera arte, une jakin batzuetan izan ezik, eta berriz aktibatu genuen taldea, gure lurraldeetako emakumeek bereziki bizitzen genituen askotariko zapalkuntzei aurre egiteko.

Askotarikoak gara adinari, jatorriari, lanei, ekonomiari, sinesmenei, bizitza-istorioei eta abarri dagokienez,

eta guztion artean, zenbait jardunalditan informazioa lortzeko kontsultatzen ditugun beste emakume askorekin batera, proiektu bat sortzen ari gara. Proiektu horretan sinesten dugu, eta ziur gaude goialdeko auzoetako emakumeen bizitzak hobetuko dituela, bai eta eremu hauetan eta harago bizi garen pertsona guztienak ere.

Koloretxe deitzen da proiektu hori. Bilboko goialdeko auzoetako eta haragoko emakumeen etxea da.

Koloretxe

Etxe hau indarkeriako egoera kaltegarri horiek eraldatzeko tresna da; hala, geure espazio-denbora bihurtzen da, askotariko emakumeok elkar topatzeko eta ezagutzeko, laguntzeko eta sendatzeko, erresistentzia egiteko, eraldatzeko eta ahalduntzeko, parte hartzeko eta aldarrikatzeko, deskolonizatze eta hazteko.

Guztion artean eraikiko dugu, eta toki atsegina, askotarikoa eta alai izango da, elkartasunera eta solidaritatera irekitako ate, leiho eta zubiz bete. Ez du inor baztertuko. «Auzoen erdian dagoen eguzkia».

Hautemandako premia ugariak asetzeko, guneak handia, duina eta irisgarria izan behar du, eta beharrezkoa da erdialdean egotea. Bilboko Udalak eta lurralde hauetako talde eta pertsonak elkarrekin kudeatuko dute, parte-hartze sozial eta laboral aktiboaz.

Uste dugu Harrobi Plazako (San Frantzisko) Bastida eraikina gune ona izan daitekeela. Garai batean, eraikina sortzen ekonomikoki ere lagundu zuten prostitutentzako anbulatorioa izan zen. Izan ere, soldaduak eta zenbait sail ofizialetako gizonak larriki gaixotzen eta hiltzen ziren, sexu-bidezko gaixotasunen eraginez, eta prebentzio-neurririk hartzen ez zuten, sexu-arloko langileak kontrolatzea erabaki zuten. Horregatik sortu zuten eraikina. Hori dela eta, uste dugu erakina emakumeentzako ordain-elementu bihurtu daitekeela eta Koloretxe bihurtzeko baldintza guztiak betetzen dituela.

Azkenaldian, proiektu honen berri ematen ari gara inguruko eta kanpoko talde eta biztanleei, baita talde



Galtzagorri utzitako irudia.

feministei ere, guztion artean lan egin dezagun gure nahia eta premia betetzeko. Aldi berean, zenbait erakunde eta talde politikorekin hitz egiten ari gara, eta gehienek beren oniritzia eman diote etxeari, batzuek baita beren babes osoa ere. Halaber, uste dugu ezinbestekoa dela mota guztietako komunikabideekin harremanetan egotea, gure auzoetatik harago ere jakinarazteko zein egoeratan gauden emakumeak eta nolako premia dugun Bilboko goialdeko auzoetako emakumeen etxea lortzeko.

Begoña González Sánchez*
(Galtzagorri emakume-taldea)

* Pertsona batzuk auzoan bizi eta/edo ibiltzen dira, eta beste batzuk auzokoak gara. Toki honetatik idazten dut testua, eta bertatik hartzen dut jarrera eta aldarrikatzen dut.



UKS: Unibertsitate kritiko eta eraldatzaile bat lortzeko espazioak sortzen

2012an, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak hausnarketa-prozesu bat abiatu zuen, Unibertsitate Publiko Kritiko eta Konprometituaren inguruan, hainbat eragile bilduz: elkarteak eta UPV/EHUko Gipuzkoako campuseko ikasleak eta irakasleak. Hala hasi zen UKS (Unibertsitate Kritikoa Sarea). Hausnarketa-prozesu hori bat dator UPV/EHUko beste prozesu batzuekin (Hariak Ehunduz, Ekimuin, etab.), eta, guztiek batera, pentsamendu-korrante zabalago bat osatzen dute bai UPV/EHUn barruan bai handik kanpo, zeinak unibertsitate publikoen funtzio soziala indartu nahi baitu, hain zuzen ere, eremu publikoa jo eta su defenditu beharra dagoen garai batean. Ez da UPV/EHUn *aurkako* espazio bat, ezpada unibertsitatearen beraren barruan *bizirik* dagoen espazio bat, zeinak unibertsitatea garatzen eta eraikitzen lagundu nahi baitu, unibertsitate ireki, demokratiko eta parte-hartu baterako bidean.

Sareak, hasieratik bertatik, mahai gainean jarri nahi izan du hainbat antolakundek espazio akademikoaren barruan aurrera eraman duten jarduna, eta balioa eman nahi izan dio: Erantzukizun Soziala deitu izan zaion eremuko ekintzak izan dira, eta, bertan, batez ere, boluntario-lanak eskaini izan dira, garapenerako lankidetzan eta giza eskubideei buruzko sentsibilizazioan eta prestakuntzan. Halako espazioek herritarrak hezteko balio dute; nolahi ere, aitortza eskasa jasotzen dute unibertsitatearen funtzio soziala neurtzeko erabiltzen ditugun parametroetan.

Azken urteotan, gero eta gehiago aipatu da *Unibertsitatea-Gizartea* binomioa akademiaren mintzairan, eta horren bidez islatu da, hain justu ere, misio unibertsitarioak bete behar lukeen

funtzio soziala. Edonola ere, ikuspegi kritiko batetik begiraturaz gero, *Gizarteari* dagokion espazioak ez ditu kontuan hartzen unibertsitateak bere barnean hartzen dituen komunitateen beharrak eta horko elkarteak; aitzitik, *Gizartearen* esparru horretan bestelako logika batzuk sartzen ari dira: eredu kapitalista nagusiaren interesekin eta merkatuarekin bat egiten duten logikak (Hyatt, Shear eta Wright, 2015). *Gizartearen* kontzeptua erabiliz (eta *gaizki erabiliz*), hainbat unibertsitate publikotan (eta ez bakarrik UPV/EHUn), apurka-apurka enpresa-logikak barneratzen ari dira, eta joera horri tinko kontra egin ezean, enpresa-logikek zehaztuko dute zer eduki emango diren eskoletan eta zer ikerketa-ildo bultzatuko diren.

Ikasleak –eta, batez ere, ikasle gazteenak– kezkaturik daude beren lan-aterabideekin; hori kontuan hartuta, gerta daiteke goi-mailako hezkuntzak enplegagarritasunaren eta profesionalizazioaren logikari amore ematea, eta, hala, norbanako espezializatuak ekoiztera murriztea: halako norbanakoak gizartean txertatuko dira eta merkatuaren helburuak beteko dituzte, bai, baina merkatuaren helburuak eta herritarren eta instituzio *errepublikarren* beharrak ez dira beti berdinak (ikus Fernández-Liria, García eta Galindo, 2017). Ildo horri tiraka, zenbait autorek adierazi dute “hezkuntzak ondasun pribatu bat ematen duela, eta ez ondasun publiko bat”, eta, horrez gainera, “gizarte neoliberaletan, osasungintza, hezkuntza eta beste hainbat zerbitzu produktuak direla, ez besterik: merkatuak sal ditzakeen produktuak” (Blum eta Ullman 2012: 368). Ikuspegi horren arabera, hezkuntza ez da *inbertsio* bat, ezpada *gastu* bat, eta ikasleak ez dira *herritarrak*,



SOS Ikasleak elkarteak lagatako irudia (Etxeko langileen lan-esplotazioaren aurkako ikasle-ekintza, UPV/EHUko Ibaeta campusean, Gipuzkoan).

ezpada bezeroak/kontsumitzaileak (ikus Manzano-Arrondo, 2011).

Behin diagnostikoa eginda, UKS sareak indarrak bildu nahi ditu Gipuzkoako campusean, eta bat egin nahi du UPV/EHU barruko eta kanpoko beste eragile garrantzitsu batzuekin: espazio bat eskaini nahi du, bertan modu irekian eztabaida dadin zer funtzio bete behar duen Unibertsitate Publikoak eta zer beste irizpideren arabera neurtu nahi dugun etorkizuneko belaunaldiei utziko diegun unibertsitatearen bikaintasuna eta kalitatea. Eztabaida ireki eta eraikitzaile bat hauspotu nahi dugu: Unibertsitateko kide aktiboekin hitz egin nahi dugu (administrazioko langileekin, irakasle eta ikertzaileekin, ikasleekin, azpikontrataturako langileekin eta abarrekin), eta orobat hitz egin nahi dugu gizarte osoarekin. Hala, gizarte-mugimenduek eta elkarteek askoz toki handiagoa izatea nahi genuke.

Sareak zenbait proposamen egin ditu kalitatearen eta bikaintasunaren harira (ikus Arnoso, Gastón, Larruskain, Basurko eta Gallo, 2019), eta, besteak beste, zera azpimarratu du: Unibertsitateak lagundu behar duela gizarteak *askatzen* eta gehiengo sozialen ondasun komunak eta ongizatea sustatzen, eta, bestalde, salatu egin behar duela gehiengo sozial horiek gero eta bortitzago baztertzeko dituen

ordena sozial eta ekonomikoa. Gure iritzian, Unibertsitateak askapen-etika bati jarraitu behar lioke (Dussel, 2011), eta Unibertsitatean sortzen diren ezberdinkeria eraikitzen, betiketzen, mantentzen eta erreproduzitzen duten menderakuntza-mekanismo eta -egitura sotilak ikusarazteko eta desgiteko (ikus Manzano-Arrondo, 2015). Unibertsitate horrek, Gramsciren ildoari tiraka, alternatibak eskaini behar lituzke (iturria: Meneses, 2015) *hiltzen ari den eredu baten eta jaiotzea kostatzen ari zaion beste eredu baten* kontestuan.

Ildo horri tiraka, gure iritziz, Unibertsitateak bizitza eta zaintza-lanak jarri behar ditu erdigunean, eta, *genero-ikuspegia* txertatzeko oinarrizko eskakizunetik harago, ekintza eta posizio feministatik eragin behar du. Unibertsitateak ingurumenaren jasangarritasunaren aldeko ardura hartu behar du, eta ez du aliantzarik sortu behar ingurumenaren eskubideak urratzen dituztenekin. Unibertsitateak kulturartekotasuna zaindu behar du, eta bere egituretan eduki behar ditu, normal-normal, gure gizarteko kide diren eta bertan presente dauden beste talde etno-kultural batzuetako pertsonak. Era berean, unibertsitatearen izaera publikoa indartu nahi dugu, eta herritarrei ireki nahi diegu, unibertsitatearen jabe izan daitezten. Ingurumenaren ikuspegiari helduta,



UKS sareak lagatako irudia (SOS Arrazakeria, Emaus eta UKS erakundeen ekintza, Europako politika arrazisten kontra, UPV/EHUko Ibaeta campusean, Gipuzkoan).

aztertu nahi dugu ea zer-nolako eragina daukan unibertsitatearen antolamenduak, kokapenak eta egitura fisikoak jendearen parte-hartzean, hau da, ea kontaktua eta parte-hartzea errazten dituen (*ala ez*). Gure ustez, jakintzari buruzko ikuspegi ekologiko batean sinesten dugunez, ezinbestekoa da, irakasleen eta ikertzaileen jardunean, ezagutzak eta jakintza eraikitzeko espazioak joan-etorrian ibiltzea, unibertsitateko espaziora sartuz eta handik ateraz. Hala, elkarteen ezagutzek askoz presentzia handiagoa izango dute eskoletan, eta, era berean, ezagutza akademikoa gizartera iritsiko da, eta horixe izango litzateke unibertsitateko jardunaren oinarritzko balioetako bat.

Azkenik, uko egin nahi diogu Akademiak neutrala izan behar duela dioen ikuspegi (*engainagarri*) horri: gure ustez, Unibertsitateak posizio politikoak hartu behar ditu instituzioen neurri bidegabeen aurrean eta giza eskubideak urratzen dituzten gertakarien aurrean. Ez ditugu *halabeharrezko* gertaeratzat hartu behar eremu publikoaren prekarizazioa, austeritatea eta murrizketak: *subertsitate* bat behar dugu (de Sousa Santos, 2009), hau da, altxatuko den unibertsitate bat. Unibertsitate horrek posizio bat hartuko du bertako langileen, azpikontraturiko beharginen eta ikasleen eskubideak ahultzen direnean, eta berdin

erantzungo du komunitate osoari kalte egiten dioten neurrien aurrean; hala, gizarteko kideen eskubideak zabaltzeko prozesuak hauspotuko eta gidatuko ditu.

Kalitatearen eta bikaintasunaren ereduak eztabaidatu beharra dago, eta gizarte zibilak bere iritzia eman behar du eztabaida horretan. Ez hori bakarrik, gizarte zibilak lagundu behar du adierazle-sistema alternatibo bat ezartzen, eta Unibertsitate Sistemako Kalitate Agentziek kontuan hartu behar dute sistema hori. Adierazle-sistema horrek *poza merezi duen* Unibertsitate bat ezaugarritu behar du, hartara, Unibertsitatearekiko sentitzen dugun identifikazioa handitu dadin, eta Unibertsitatea zaintzeko, babesteko eta garatzeko gure konpromisoa haz dadin (ikus Manzano-Arrondo eta Boni, 2019).

Bibliografia



Arnoso, M., Gastón, A., Larruskain, O., Basurko, I eta Gallo, E. (2019). "De la cultura del éxito a la cultura del bien común y el buen vivir: caminando juntas hacia una universidad crítica y transformadora". A. Casado (Ed.). *Cultura Dual. Nuevas identidades en*

- interacción universidad-sociedad* (169-188. or.). Madrid: Plaza y Valdés.
- Blum, D. & Ullman, C. (2012). "The globalization and corporatization of education: The limits and liminality of the market mantra", *International Journal of Qualitative Studies in Education* (25:4), 367-373.
- Dussel, E. (2011). *Filosofía de la Liberación*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- De Sousa Santos, B. (2009). *Una epistemología del Sur. La reinención del conocimiento y la emancipación social*. Mexiko: Siglo XXI.
- Fernández Liria, C., García Fernández, O. & Galindo Fernández, E. (2017). *Escuela o Barbarie. Entre el neoliberalismo salvaje y el delirio de la izquierda*. Madrid: Ediciones Akal.
- Hyatt, S., Shear, B. & Wright, S. (2015). *Learning under neoliberalism: ethnographies of governance in higher education*. New York: Berghahn.
- Manzano-Arrondo, V. (2011). *La universidad comprometida*. Bartzelona: Hipatia.
- Manzano-Arrondo, V. (2015). Activismo frente a norma: ¿quién salva a la universidad?, *RIDAS. Revista iberoamericana de aprendizaje servicio: Solidaridad, ciudadanía y educación*, 1, 28-55.
- Manzano-Arrondo, V. eta Boni, A. (2019). Despertando la universidad: propuestas desde el Desarrollo Humano. A. Casado (Ed.). *Cultura Dual. Nuevas identidades en interacción universidad-sociedad* (85-98. or.). Madrid: Plaza y Valdés.
- Meneses, J.P. (2015). *Una vuelta al tercer mundo: La ruta salvaje de la globalización*. Madrid: Penguin Random House.

María Sarasola¹, Maitane Arnosó¹,
Alberto Gastón², Maitane Cabeza³,
Xavier Minguez¹ y Paty Ortiz de Zárate⁴

-
- 1 Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Uniberstitatea.
 - 2 EMAUS Fundazioa/ EKIMUIN proiektua.
 - 3 Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.
 - 4 Mugen Gaietik.



	<p>Nortzuk gara</p> <p>Hemen aurkituko gaituzue</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garúa • www.garuacoop.es 
---	---	---

Garúa: jakintzen ekologia jardunean

Garua portugesezko hitza da, leun-leun jausi eta ia konturatu ere egin barik blai uzten gaituen euria izendatzeko erabiltzen dena. Bultzatzen ditugun hezkuntzak eta proiektuek horren antzeko gaitasuna dutelakoan gaude, astiro-astiro, ia oharkabean, aldaketa sakonak eta iraunkorrak eragiten baitituzte. Lan elkartuko kooperatiba eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena gara, 2006az geroztik hezkuntzari, ikerketari eta gizarte-ingurumenari emana dagoena. Gure taldean ezagutza-esparru askotan trebatutako pertsonak bildu gara: soziologoak, antropologoak, gizarte- eta ingurumen-hezitzaileak, nekazaritzako eta industriako ingeniari teknikariak, biologoak, kimikariak eta geologoak. Elkarlanean diharduten jakintzen ekologia, lantzen ditugun proiektuak ahalbidetzeko helburuarekin.

Jardunbide kooperatiboei esker, demokratikoki antolatzen gara, eta denok gara enpresaren jabe; hala, enpresa gure beharrian eta interesetara egokitzen dugu, eta bizitza jarduera ekonomikoaren erdigunean kokatu. Era berean, enpresaren jardunak gizartea hobetzeko balio izatea lortzen dugu. Garúa osatzen dugun pertsonak ekologismotik eta auzogintzatik gatoz, eta kooperatibismoan aurkitu dugu geure jarduera profesionala eta grina sozialak koherentziaz bateratzeko modua. Izan ere, proiektu eraldatzaileak bultzatzera bideratzen dugu lanaldiaren zati handi bat.

Gizarte-ekonomia solidarioaren mugimenduak ekonomia demokratizatzea du helburu, eta gizartea nahiz ingurumena suntsitzen dituen ereduaren ordezkotik aukerak eraikitzen ditu horretarako. Ekonomia konbentzionalaren barruan jardun arren, haren logikatik, balioetatik eta jardunbidetik kanpo dauden erakunde eta kooperatibek osatzen dute. Enpresaren ikuspegitik bideragarriak diren proiektuak, baina ekonomia konbentzionalaren

lehentasunak iraultzeko gai ere badirenak: irabazi-asmooaren aurretik, premiak asetzeari; deslokalizazio-mehatxuaren aurrean, lurraldetasuna eta ingurunearekiko lotura; lehiaren ordezkotik, lankidetzari; irabazien tasa hobetu beharrean, gizartea hobetzea; kapitalari soilik begiratzen dioten enpresen parean, enpleguaren eta talderik ahulenen aldeko apustua; talde barruan nahiz kanpoan zaintzei arreta egitea; konpromiso ekologiko sendoa...

Trantsizio ekosozialak sustatzera bideratutako tematiketan aritzen gara, hezkuntzatik, ikerketatik, prozesuetarako laguntzatik edo proiektuak bultzatzeko lanetik abiatuta. Prestakuntzaren alorrean, masterrak eta graduondokoak lantzen ditugu, baina hezkuntza ez-araututik abiatuta; eskoletan, gizarte-erakundeetan eta herri-erakundeetan aritzen gara, eta ikasmaterialak sortzen ditugu. Energiari nahiz udaletarako politika publikoei buruzko ikerketa-proiektuak egin ditugu. Prozesuetan laguntzeko lanari dagokionez, bi esparrutan gauzatzen da batez ere: batetik, eskoletako jantoki konbentzionalak eredu osasungarriagoetara edo ekologikoagoetara bideratzeko lanean, eta, bestetik, bertoko eta beste eremu geografiko batzuetako gizarte-erakundeei gizarte-eraldaketa ez-biolentoari buruzko prestakuntza eskaintzen.

Eta, azkenik, bestelako ekimenak ere bultzatzen ditugu; adibidez, El Arenero. Hazkuntza-gune kooperatiboa da, eta familiek zuzeneko partaidetza dute haren dimentsio osoan, guneko laguntzaileekin batera. Hasiera-hasierako haurtzaroaren zaintzak begirada kolektiboarekin lantzen dituen jardunbidea. Begirada hori auzora ere zabaltzen da, bestelako hezkuntza-esperekin batzuekin harremanetan sartuz eta espazio publikoen erabileraren bidez. Laburbilduz, komunitatea zabalean eraikitzeke esperientzia, umeak

zaintzeko prozesu kolektiboen bidez. Horren guztiaren ondorioz sortu dugu El Faenero ere; coworkingerako eremua da, beste kooperatiba batzuekin eta hazkuntza-gunean parte hartzen duten familiekin partekatzen duguna El Arenero hartzen duen lokal berean. Haurren hazkuntza eta lana uztartzeko modu erraza da –ekimen batuk eta besteak lokal bera partekatzen dugulako–, bai eta dinamika komunitarioak jorratzeko modu egokia ere.

Ikastaroen, argitalpenen, ikus-entzuzko materialen edota beste ekimen eraldatzaileentzako laguntzaren bidez gauzatzen dugu guk jarduera hori. Lan batzuk egiteko, metodologia eta pedagogia askatzaileak erabiltzen ditugu, Partaidetzako Ekintzako Ikerketatik hasi eta Elkarrizketa bidezko Ikaskuntzara, praktikara bideratutako Ikaskuntza Taldeetatik hasi eta hezkuntza ez-arautuko hezitzaileen prestakuntzara. Sarri askotan, mundu akademikoaren curriculum-erdiak eta merkatuak gutxietsi egiten dituzte gizarte-mugimenduen jardunbideetatik oso hurbil dauden ikuspegi horiek.

Eta, egiten dugunaz harago, nola egiten dugun ere bada, gure ustez, garrantzitsua, baliabideen eta helburuen arteko koherentziaren bilaketa etengabea, eta, batzuetan, kontraesanezkoa, lantzen baitugu. Kooperatibismoaren eta ekonomia solidarioaren balioak gauzatzeko konpromisoa dugu Garúan. Besteak beste, honako kontu hauetan gauzatzen da asmo hori.

- Barne-antolamendu asanblearioa daukagu, eta, horri esker, kide guztiok informazioa jasotzeko eta enpresaren proiektuei eta egiturari buruzko erabakiak hartzeko aukera daukagu.

- Bazkideen zerbitzuan dago kooperatiba, hainbat gairen inguruan erantzuteko: laneko eta etxe biziak bateratzea, prestakuntza garatzea, edota, kooperatibistei erantzunez, etengabeko prestakuntza lantzea.

- Elkar-lankidetzaren aldeko apustua egiten dugu, eta Madrileko gizarte-alorreko 13 kooperatiba biltzen dituen Tangente Kooperatiba taldeko fundazioko kideak gara. Ekimen horren bitartez, proiektu handiagoak jorratzeko eta enpresa konbentzionalekin lehian jarduteko aukera daukagu.



Garúa utzitako irudia.

- Ekonomia solidarioko arloko sareetan (REAS Madrid eta Gizarte Merkatua, besteak beste) parte hartzeaz gain, bestelako ekimenak ere lantzen ditugu, hala nola Transakzio Foroa, trantsizio ekosozialerako proposamenak egiten dituen, edota Comunitaria, ondare erkideetarako ekonomiak aztertu eta jorrotzen dituen.


- Gizarte Balantzea egiten dugu urtero; hau da, gizarte-ekonomiako enpresek beren burua ebaluatzeko eta jardunbideen eta enpresaren filosofiaren inguruan (irabazi-asmorik eza, lan-politikak, elkar-lankidetzak, demokrazia...) hausnartzeko erabiltzen duten galdetegia. Emaiza argitara ematen da, gardentasun-politiken parte baita.

- Gure kontuetan irabaziak agertzen diren urteetan, eta behin nahitaezko erreserbak egin eta gero, proiektu ekosozialei laguntzeko erabiltzen dugu beraien zati bat.

Merkatu kapitalistaren egituretan lan egin eta aldi berean eredu sozioekonomiko alternatiboak bultzatzearen kontraesanean bizi gara kooperatibak; gizarte- eta ingurumen-balioak ezarri, eta, aldi berean, ekonomikoki errentagarriak izatearen erronkari egin behar diogu aurre. Errealitatean esku hartzen dugu, aldatzeko asmoz; ibilian dabilen paradoxa gara. Izan ere, gure hamargarren urteurrena ospatzeko erabili genuen kamisetak zihoen bezala, bizitza ez da ekaitza igaro arte zain egotea, euripean dantzan egiten ikastea baino.

Garúa.

begirada konprometituak



Izenburua: Nos están matando

Tokia, urtea: Kolonbia, 2018

Zuzendaritza: Emily Wright eta Tom Laffay

Produkzioa: Daniel Bustos Echeverry

Sinopsia. *Mundu osoak arreta FARCen desmobilizazioan duen bitartean, Kolonbian beste gerra bat ari da gertatzen gizarte-buruen eta gizarte-eskubideen defendatzaileen kontra; bakea eraiki eta Kolonbia berria taxutzeko pertsona gakoan kontra, alegia.*

Dokumentala Cauca departamenduan kokatuta dago; izan ere, indarkeria mota horren estatistikak gaitzitzen dira lurralde horretan. Mehatxatuta zeuden giza eskubideen bi defendatzaile jarraitu genien urtebetez. Feliciano Valenia. Nasa komunitate indigenako burua da, eta lurraren eskubideen alde egiten du borroka; eta Héctor Marino, komunitateko buru bat, afrikarren ondorengoa. Komunitatea autobabesteko talde bat ezartzen saiatzen ari da: Guardia Cimarrona delakoa.

Kamioneta blindatuetan, lurraldeko sarekadetan, talde indigenen ibilaldietan eta hileta-prozesioetan Caucako mendietan, gure filmaren bidez, ikuslea Kolonbiako Bake Prozesuaren alderdi erreal eta hilkorra gerturatzen da (Tom Laffay, The Atlantic-en).

Hemen ikus dezakezue: <www.tomlaffay.com/theyre-killing-us>

Izenburua: Gerra hemen hasten da - La guerra empieza aquí

Tokia, urtea: Bilbo, 2019

Zuzendaritza: Joseba Sanz

Produkzioa: Sutan produkzioak



Sinopsia. *Ignacio Robles suhiltzaileak, Greenpeaceko kideak, 2017ko martxoan arrazoi etikoengatik Bilboko Portuan Saudi Arabia helmuga zuen arma ontziratze batean parte hartzeari uko egin zionean sortu zen lan hau. Ekintza horri esker, zenbait gizarte-kolektibo jakinaren gainean jarri ziren: Euskaditik aldizka bidaltzen ziren Yemengo gatazkarako armak, eta, sarritan, arma horiek biztanleria zibilaren aurka erabiltzeko ziren.*

"Gerra hemen hasten da" batzordearen baitan sortu zen dokumentala egiteko ideia. Ongi Etorri Errefuxiatuak-Bizkaia eta Bilboko KEM-MOC talde antimilitaristako kideek osatzen zuten batzorde hori. Ignacio Roblesen lekukotza jasotzeaz gain, Portuaren inguruan egindako mobilizazioen berri ematen du filmak, eta Euskal Herriko arma-ekoizpenaren historia eta oraina testuinguruan jartzen ditu.

Azkenik, gertuko errealitatea Yemenekoarekin lotzeko, Sana'an errodetzea lortu zen, Euskaditik zuzendutako tokiko ekipo baten bidez, ezinezkoa baitzen herrialdean sartzea, eta Solidarios Sin Fronteras GKEEren lankidetzari esker (Diario Solidario).

Hemen ikus dezakezue: <ongietorrierrefuxiatuak.info/es/la-guerra-empieza-aqui>

argitalpenak

Izenburua: La guerra del neoliberalismo contra la educación superior

Egilea: Henry A. Giroux

Tokia, urtea: Bartzelona, 2018

Argitaletxea: Herder Editorial



Sinopsia. Egungo politika neoliberalen ondorioz, darwinismo ekonomiko bat sortu da, interes pertsonala sustatzen duena gehiegizko indibidualismoaren eta berekoikeriaren bidez. Bestalde, haren estrategiek gizarte-amnesia moduko bat pizten dute, pentsamendu kritikoa, analisi historikoa eta harreman sistemiko zabalenen edozein nozio desagerrarazten duena.

Saiakera honetan, Henry Girouxek hezkuntza-sistemara begirada kritiko bat zuzentzea proposatzen du, batez ere, Estatu Batuetako goi-mailako hezkuntzara. Neoliberalismoak goi-mailako hezkuntzaren aurka egiten duen gerra gonbidapen bat da mundu mailako gizarte- eta politika-errealitateari buruz hausnartzeko, bai eta gure gizarte- eta hezkuntza-sistemari buruz ere; izan ere, horretan, zenbait balio ez daude presente, hala nola gizarte-erantzukizuna, komunitatea eta denon ongia (Herder Editorial).

Izenburua: Feminismo/s 33. Dossier monográfico: Diálogos entre la democracia participativa y la interseccionalidad. Construyendo marcos para la justicia social

Koordinazioa: Patricia Martínez-García eta Jone Martínez-Palacios

Tokia, urtea: Alicant, 2019

Argitaletxea: Alacanteko Unibertsitateko Genero Ikasketen Ikerketako Unibertsitate Institutua, Ikerketa eta Ezagutza Besterentzearen Errektoreordetza



Sinopsia. Azken urteetan, demokrazia parte-hartzailea eta interseksionalitatea erreferentziazko bi esparru bihurtu dira, gizarte-justizia handiagoa lortzeko. Hala ere, bilaketa hori bi tresnen artean paraleloan ibili da, eta horrek bien arteko topaketaren ondorioz sor daitekeen heuristikaren azterketa mugatu du. Hala, Feminismo/s aldizkariaren 33. aleak bi ikuspuntuaren arteko elkarrizketa bideratu nahi du, harreman horrek sor ditzakeen aukerekin esperimintatuz, gure inguruneak behatzeko, aztertzeko eta eraldatzeko.

Abentura horren inguruko interesa ez da gauza berria; izan ere, Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa-taldeko Demokrazia eta Feminismoak ardatzean abiatutako lanetik datoz, eta zehatzuz joan da ikerketa-praxi eraldatzaile batekin lotutako zenbait proiektutan. Ikerketa eta hezkuntza prozesutat hartzea, mugimenduan dagoen harremantzat, funtsezkoa da hezkuntza- eta ikerketa-praktika kritiko batean eta emantzipaziora bideratutakoan lan egiten jarraitzeko (ez arrakastaz beti, eta ia inoiz ez nahiko liritekeen baldintza materialetan eta sinbolikoetan), Patricia Hill Hollinsek (Martínez-Palacios eta Collins) proposatzen digun bezala. Haren esparrua izan zen monografiko honen inspirazio (Patricia Martínez-García eta Jone Martínez-Palacios, 13. eta 14. or.).

Hemen ikus dezakezue: <<http://rua.ua.es/dspace/handle/10045/92947>>

erakundeak

Izen Kolektiboa: Territorio doméstico

Eragin-esparrua: Madril

Facebook: www.facebook.com/territoriodomestico

Twitter: twitter.com/Territoriodome1



Borroka idealak. Emakumeak, gehienak migratzaileak, elkartzeko, harremanetan jartzeko, zaintzeko eta gure eskubideen alde borrokatzeko espazio bat gara. Hona ekarri gaituen hasierako aldarrikapena da, etxeko langile garen aldetik, gure eskubideen aitortza, gure lanaren duintasuna eta gure lana baloratzea, zainketa baloratu, ikusezin bihurtu eta prekario egiten duen sistema honetan. Zainketa horiek, ordea, gure gizarte guztiei eusteko ezinbestekoak direnez, gure leloa da "Gu gabe mundua ez da mugitzen", eta gure logoa engranaje konplexu bat mugitzen ari den emakume bat da.

Mugaz bestaldeko eremu bat ere bagara, Territorio Doméstico dominikar, kolonbiar, salvadortar, ekuadortar, errumaniar, espainiar, nikaraguar, bangladeshtar, boliviarr, marokoar emakumeek osatzen baitugu, bizimodu hobe baten bila mugei aurre egin diegun emakumeak guztiak ere (Territorio Doméstico).

SINDICATO DE MANTEROS
Y LATEROS DE MADRID

Izen Kolektiboa: Sindicato de Manteros
y Lateros de Madrid

Eragin-esparrua: Madril

Web: manterosylaterosmadrid.org

Borroka idealak. Madrilgo Sindicato de Manteros y Lateros plataforma ireki bat da, biltzeko eta elkarri laguntzeko. Zenbait nazionalitatetako pertsonen osatua dago, eta bere proiektuak eta jarduerak eginez nahiz beste plataforma batzuekin kolektiboki eginez, helburu beraren bila dabilta atzerriartasan politiken aurkako borrokan. Helburu nagusiak:

- Herritar guztiek giza eskubideak baliatzeko eta aitortuak izateko aukera izango dutela bermatzea, denon ongizatea sortzen lagunduz.
- Bizikidetzaren sustatzea, gizarte-hausturari aurre hartuz, Madril osoan gizarte-mugimenduetan parte hartuz.
- Arrazismoaren, xenofobiaren eta erakunde-zapalketaren kontra borrokatzea, goitik gizartea zatitu nahi dutenen aurkako borroka-espazio eta -tresna gisa.
- Gizarte zibil informatua, kontzientea eta parte-hartzailea sustatzea. Denon artean eraikitako gizarte bat lortzeko, inor baztertu gabe, eskubideen jabe den aldeti (Sindicato de Manteros y Lateros de Madrid).

ezinbesteko agenda

Ekitaldia: GOZO I Nazioarteko jardunaldiak eskola elikadura osasungarria eta iraunkorra

Deialdia: Justicia alimentaria eta Ehige, Gurasoen elkarte

Lekua eta eguna: Bilbao. 2019ko urriaren 2tik 4ra

Informazio gehiago: www.gureplateragureaukera.eus/eu/gozo



Gizarteak iraunkortasunean, gertutasunean eta osasunean oinarritutako elikadura eredua eskatzen duen une erabakigarri batean gaude. Gure elikadura eredu globalizatu, osasungaitz eta jasangaitzaren kate-maila bat gehiago da eskola elikadura. Baina berau eraldatzeko abiapuntu ona izan daiteke ere.

Horren jakitun, GOZO I. Nazioarteko Jardunaldiak ospatuko ditugu Bilbon, munduko hainbat izkinetan martxan dauden praktika onei buruz eztabaidatu eta hausnartzeko espazioa. Urriaren 2, 3 eta 4ean eskola elikadura osasuntsuagoa eta jasangarriagoa sustatzen duten politika publikoak, eragile eraldatzaileak eta esperientzia pedagogikoak ezagutuko ditugu (Justicia alimentaria eta Ehige, Gurasoen elkarte).



Ekitaldia: Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak. Hegoaldeko mugari buruzko analisi feminista bat" Kongresua

Deialdia: CEAR Euskadi

Lekua eta eguna: Bilbao. 2019ko urriaren 2tik 4ra

Informazio gehiago: <https://www.cear-euskadi.org/eu/mugak-gurutzatzen-dituzten-bizitzak-hegoaldeko-mugari-buruzko-analisi-feminista-bat-kongresuaren-programa>

Kongresuan, hegoaldeko muga gurutzatzen duten emakumeek aurrez aurre izaten dituzten indarkeriak landuko ditugu, nazioarteko babesa ere biltzen duen ikuspegi integral eta feminista batetik. Alderdi teorikotik nahiz bidean eta harrera-tokietara iritsitakoan emakumeei ematen zaien laguntzaren ikuspegitik jorratuko ditugu gai nagusiak.

Estatuan, tokian eta alde batetik besterako guneetan migratzaileei arreta eta laguntza ematen dieten erakundeek hartuko dute parte, bai eta giza eskubideetan, feminismoetan eta nazioarteko babesean espezializatutako erakundeek ere. Horrez gain, mugek emakumeen gorputzetan eta bizitzetan dituzten eraginak alderdi teorikoagoan lantzen dituzten erakundeak eta pertsona adituak ere izango ditugu (CEAR Euskadi).

matxino artean
en rebeldía



Una revista parida en el sur,
con los aires frescos, reivindicativos,
inclusivos, diversos, plurales y
feministas de Andalucía.

Nace con las ganas de visibilizar las
historias de personas reales olvidadas
en los medios de comunicación y de
desgranar el sistema heteropatriarcal
que las victimiza y/o criminaliza.

Llevamos por delante la intención
de aprender y de empoderar.

Para hacerlo, usamos la herramienta
que mejor conocemos: la información.



Visítanos en: www.lapoderio.com

Comunicación con acento y dialecto,
con mirada de luceros encendidos,
con la cabeza bien puesta
y con el corazón y la pluma en la mano.

ole @lapoderio.com
www.lapoderio.com

f La Poderio
@lapoderiofem